

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI), 2011KO UZTAILA

2011ko uztailean % 9 bidaiari gehiago etorri da Euskal AERA

2010eko uztailarekin alderatuta, gaua igaro dutenen kopurua % 10 gehitu da

Eustaten datuen arabera, 2011ko uztailean 264.045 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal AEko hotel-establezimenduetan, hau da, iazko hilabete berean baino 22.880 gehiagok; horrenbestez, % 9ko gehikuntza izan da. Arabara heldutako bidaiari kopurua % 7 gehitu da, Bizkaira iritsitakoena % 16 eta Gipuzkoara heldutakoena, azkenik, % 3.

Estatutik etorritako bidaiari kopuruak % 10 egin du gora, eta atzeritik etorritakoen kopuruak, oster, % 8. Estatutik etorritako bidaiarien kopurua hiru lurraldeetan gehitu da. Araban % 9 gehitu da kopuru hori, Bizkaian % 18 eta Gipuzkoan % 1. Atzeritar kopurua ere gehitu da hiru lurralde historikoetan: Arabara etorritakoen kopurua % 3 gehitu da, Bizkaira etorritakoena % 12 eta Gipuzkoara etorritakoena % 6.

Estatuko bidaiarien artean, gehitu egin dira honakoetatik etorritako bidaiarien ehunekoak: Asturias, Gaztela eta Leon, Katalunia, Madril eta Euskal AE bera. Baina bidaiari gutxiago etorri dira Aragoi, Extremadura eta Errioxatik, besteak beste. Atzeritarren artean, Frantziatik, Iberoamerikatik, Herbehereetatik eta USA-Kanadatik etorritako bidaiari kopuruak gora egin du; baina behera egin du Portugal eta Belgikatik etorritakoen kopuruak.

2011ko uztailean 515.960 gau igaro dituzte bidaiariek; hau da, iazko uztailarekin alderatuta gaua igaro dutenen kopurua % 10 gehitu da, guztira ia 48.366 gau gehiago igaro baitituzte. Igarotako gauek urte batetik bestera bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Araban % 5 gehitu da kopuru hori, Bizkaian % 20 eta Gipuzkoan % 2.

Batez besteko egonaldiaren iraupenak pixka bat gora egin du Euskal AE osoan eta 2010eko uztailaren aldean: 1,94 eguneko egonaldia eman zen 2010eko uztailean eta aurtengo uztailean, aldiz, 1,95 egunekoa. Lurraldeka, Araban 1,74tik 1,71ra jaitsi da egun kopurua; Bizkaian 1,85 egunetik 1,92 egunera igo da, eta Gipuzkoan ere jaitsi egin da, 2,12tik 2,10 egunera.

Plazaka okupazioak gora egin du % 8, eta guztira 2011ko uztailean % 60,57koa izan da. Gorakada hiru lurraldeetan eman da. Araban % 4 igo da, Bizkaian % 16 eta Gipuzkoan % 1. Arabako okupazio maila 2010eko uztaileko % 48,49tik 2011ko uztaileko % 50,57ra igaro da; Bizkaian % 50,17tik % 57,95era igo da eta Gipuzkoan 2010eko uztaileko % 67,83tik urte honetako uztaileko % 68,81era.

NEKAZARITZA-TURISMOKO ESTABLEZIMENDUAK

Euskal AEra etorritako bidaiari kopurua % 5 jaitsi da eta igarotako gau kopurua ez da aldatu (% 0) 2010eko uztailarekin konparatuta

Uztailean 15.130 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan, iazko hilabete berean baino % 5 gutxiagok. Emaiza positiboak Araban besterik ez dira izan (% 6); izan ere, Bizkaian eta Gipuzkoan kopuruak % 7 egin du behera. Estatutik etorritako bidaiari kopurua % 2 jaitsi da Euskal AEn: % 4 igo da Araban, baina % 3 jaitsi da Bizkaian eta Gipuzkoan. Euskal AE osoan % 22 atzeritar gutxiago izan da; Bizkaian % 24 gutxiago izan da eta Gipuzkoan % 28; Araban, ordea, % 30 egin du gora.

Uztailean 47.664 gau igaro dituzte Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan; horrek esan nahi du iazko zifrak errepikatu direla, eta Araban eta Bizkaian urte batetik bestera hazkunde tasak negatiboak izan direla, hain zuzen ere % 1 bi lurraldeetan. Gipuzkoan, ordea, datu berdinei eutsi zaie.

Bidaiarien batez besteko egonaldia % 5 luzatu da Euskal AE osoan 2010eko uztailleko batezbestekoaren aldean. Iaz 3,00 egun ziren eta aurtengo uztailean 3,15 izan dira. Lurraldeka Arabako beherakada ikusi da (% 6); lurralde honetako bidaiari bakoitzaren batez besteko egonaldia 2,77 egunekoa izan zen 2010eko uztailean, eta urte honetako uztailean, ordea, 2,59 egunekoa. Bizkaian % 7 gehitu da batez besteko egonaldia; iazko uztailean 2,63 egunekoa izan zen, eta 2011ko uztailean 2,81 egunekoa. Gipuzkoan ere gora egin du egonaldiak, % 8; izan ere, aurreko urteko 3,26 egunetik aurtengo uztaileko 3,52 egunera igaro baita.

Plazaka okupazioak behera egin du % 2 Euskal AE osoan: % 38,29tik % 37,70era pasatu da, Araban behera egin duelako (% 10); Bizkaian, ordea, % 2 egin du gora, eta Gipuzkoan ez da aldatu.

Argibide gehiago:***Euskal Estatistika Erakundea****Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz**Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es**Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja**Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01.**Prentsa-oharrak Interneten: [ETHI - Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta](#)**Datu-bankua: [ETHI - Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta](#)*

1. taula: Euskal AEko hotel eta nekazalturismoko establezimenduak Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA / ÁLAVA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	07 2011	(%)	07 2010	(%)	Δ %	07 2011	(%)	07 2010	(%)	Δ %	07 2011	(%)	07 2010	(%)	Δ %	07 2011	(%)	07 2010	(%)	Δ %
	HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																			
GAUALDIAK	515.960	100	467.594	100	10	71.365	100	67.959	100	5	237.300	100	197.286	100	20	207.295	100	202.349	100	2
Estatukoak	315.910	61	287.501	61	10	50.033	70	46.950	69	7	147.986	62	121.773	62	22	117.891	57	118.778	59	-1
Atzerrikoak	200.050	39	180.093	39	11	21.332	30	21.009	31	2	89.314	38	75.513	38	18	89.404	43	83.571	41	7
Hiriburua	315.926	61	287.575	62	10	54.498	76	50.995	75	7	147.253	62	122.089	62	21	114.175	55	114.491	57	0
Litoral	60.872	12	62.589	13	-3	-	-	-	-	-	21.016	9	22.973	12	-9	39.856	19	39.616	20	1
Barnealdea	139.162	27	117.430	25	19	16.867	24	16.964	25	-1	69.031	29	52.224	26	32	53.264	26	48.242	24	10
BIDAIARIEN SARRERAK	264.045	100	241.165	100	9	41.685	100	39.004	100	7	123.525	100	106.663	100	16	98.835	100	95.498	100	3
Estatukoak	159.391	60	144.531	60	10	27.412	66	25.156	64	9	76.497	62	64.672	61	18	55.482	56	54.703	57	1
Atzerrikoak	104.654	40	96.634	40	8	14.273	34	13.848	36	3	47.028	38	41.991	39	12	43.353	44	40.795	43	6
Hiriburua	155.650	59	145.478	60	7	30.181	72	27.576	71	9	73.107	59	66.636	62	10	52.362	53	51.266	54	2
Litoral	26.538	10	27.672	11	-4	-	-	-	-	-	9.969	8	10.441	10	-5	16.569	17	17.231	18	-4
Barnealdea	81.857	31	68.015	28	20	11.504	28	11.428	29	1	40.449	33	29.586	28	37	29.904	30	27.001	28	11
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,95		1,94		1	1,71		1,74		-2	1,92		1,85		4	2,10		2,12		-1
BETETZE-MAILA PLAZAKA	60,57		56,22		8	50,57		48,49		4	57,95		50,17		16	68,81		67,83		1
Hiriburua	67,41		63,15		7	57,13		53,24		7	64,64		55,83		16	78,48		81,26		-3
Litoral	63,69		67,48		-6	-		-		-	51,91		57,54		-10	72,35		75,00		-4
Barnealdea	48,39		41,41		17	36,89		38,24		-4	48,90		38,79		26	52,90		46,12		15
BETETZE-MAILA GELAKA	67,82		62,49		9	58,25		54,89		6	65,80		57,81		14	75,03		72,43		4
Hiriburua	75,56		70,71		7	67,27		62,04		8	73,67		65,13		13	84,18		85,70		-2
Litoral	69,08		71,41		-3	-		-		-	58,29		60,35		-3	76,67		78,93		-3
Barnealdea	55,00		46,36		19	38,48		39,68		-3	55,36		45,02		23	61,60		50,99		21
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	47.664	100	47.828	100	0	6.478	100	6.544	100	-1	12.699	100	12.767	100	-1	28.487	100	28.517	100	0
Estatukoak	40.429	85	38.358	80	5	5.586	86	5.564	85	0	10.183	80	9.796	77	4	24.660	87	22.998	81	7
Atzerrikoak	7.235	15	9.470	20	-24	892	14	980	15	-9	2.516	20	2.971	23	-15	3.827	13	5.519	19	-31
BIDAIARIEN SARRERAK	15.130	100	15.968	100	-5	2.505	100	2.359	100	6	4.526	100	4.861	100	-7	8.099	100	8.748	100	-7
Estatukoak	13.124	87	13.394	84	-2	2.240	89	2.155	91	4	3.804	84	3.916	81	-3	7.080	87	7.323	84	-3
Atzerrikoak	2.006	13	2.574	16	-22	265	11	204	9	30	722	16	945	19	-24	1.019	13	1.425	16	-28
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	3,15		3,00		5	2,59		2,77		-6	2,81		2,63		7	3,52		3,26		8
BETETZE-MAILA PLAZAKA	37,70		38,29		-2	22,84		25,43		-10	31,39		30,71		2	49,46		49,51		0
BETETZE-MAILA GELAKA	39,89		40,30		-1	25,08		27,29		-8	33,16		32,26		3	52,05		52,45		-1

Iturria: EUSTAT. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (ETHI)